

Hizkuntzarekin erlazionaturiko online informazioa europar hizkuntza gutxituetako hedabideetan

Iñaki Zabaleta Urkiola¹, Tania Arriaga-Azkarate², Gentzane Martinez de Osaba³
Katedradun emeritua¹, Irakasle atxikia², Irakaslea³, UPV/EHU

Artikulu honek, lehen aldiz era sistematikoki konparatzailean, hizkuntza gutxituei buruzko online informazioaren bolumen/estaldura eta garrantzia ikertzen ditu Europako bederatzizko hizkuntza-komunitate gutxitutako prentsa, irrati eta telebista garrantzitsuenen webguneetan. Ikerketan, halaber, online albisteen *framing* edo enkoadraketa ere zedarritzen da, hainbat aldagai eta atributuren bitartez: izaera, eduki-tipologia, *topos* edo foku geografikoa, eta protagonisten profila. Gainera, emaitzak konparatu egiten dira hizkuntza nagusietako hedabide nagusien webguneen online albistegintzarekin. Europako bederatzizko hizkuntza gutxituak euskara, galesa, galiziera, irlandera, bretoiera, frisiera, samiera, korsikera eta gaeliko eskoziarra dira.

GAKO-HITZAK: Online albistek · Hizkuntza gutxituetako hedabideak · *Framing*-a · Hizkuntzen arteko konparaketa.

Language-related Online News in European Minority Language Media

This article presents, for the first time in a systematically comparative way, a comprehensive investigation into the volume and significance of online news related to minority languages on the websites of the main press, radio, and TV outlets in nine European minority language communities. It also analyzes the framing of online news in terms of various variables and attributes, such as character, content typology, topos or geographic focus, and profile of the protagonists. Additionally, the results are compared with the coverage from majority-language media websites. The nine European minority languages studied are Basque, Welsh, Galician, Irish, Breton, Frisian, Sami, Corsican, and Scottish Gaelic.

KEY WORDS: Online news · Minority language media · Framing · Cross-linguistic comparison.

1. Sarrera eta ikuspegi teorikoa

Online kazetaritza eta informazioa funtsezkoak dira bititza sozial, kultural eta ekonomikorako, eta gainditu egin dituzte modu tradizional ez ginarik albiste-ekoizpena eta kontsumoa (Mitchelstein, 2009). Funtsezko aktoreak dira gizartearen informazio-premien zerbitzuari begira, eta elkarrizketa publikoa ahalbidetzen dute beren berezko egituragatik. Hedabideen gaur egungo eraldaketa, digitalizazio-prozesu konplexu batek bultzatuta, hainbat hizkuntz komunitate gutxitutan ere gertatu da, non sare sozialak (Jones, 2012) eta online albiste-plataformak (Ferré *et al.*, 2018) hedatu diren. Halaber, hizkuntza nagusietako komunikabideak populazioaren gehiengoa eta kultura nagusia zerbitzatzera bideratuta daudenez nagusiki, garrantzitsua bihurtu da hizkuntza gutxituetan online plataformak eta hedabideak garatzea, beren komunitateei informazio egoki, ugari eta kalitatezkoa emateko; kultur eta hizkuntz beharrak asetzeko; eta esfera publiko propioa eraikitzen laguntzeko (Browne, 2005).

Bestalde, hizkuntzaren eta hedabideen arteko erlazioari buruzko ikerkuntza garrantzi eta aniztasun handiko lan-eremua da, zeinen artean, besteak beste, hurrengo alorrak dauden: estilo, lexiko eta egitura gramatikalei buruzko analisi linguistikoa (Bell, 1995); edukien analisia (Van Dijk, 1987; 1991); ideologia eta hizkuntza (Simpson, 1993); generoa, hedabideak eta hizkuntza (Talbot, 2010); audientziak eta hizkuntza (Moores, 2016); identitatea eta hedabideak (Van Leeuwen, 2009), eta medioak eta hizkuntza gutxituak (Cormack, 2016).

Aurkeztera gatozen ikerketa honek hizkuntza gutxituekin zuzenean erlazonaturiko online albisteen bolumena edo estaldura azaltzen du, eta horrekin batera horien izaerazko ezaugarriak, eduki-tipologia eta protagonisten soslaiak.

Emaitzek eta ondorioek argia ematen dute komunitate linguistikoko gutxituetarako oso sentikorra den arazo baten inguruan: nola eta zer neurritan beren hizkuntza eta honekin erlazonaturiko gertakariak hedabideetan adierazi eta argitaratuak izan ohi diren. Izan ere, komunitate gutxituak izanik, maiz, aurreiritziek, mitoek eta estereotipoek aurre hartzen baitiote errealitateari. Horretaz gain, ikerketa honen balio gehigarri bat da, Europako bederatzi hizkuntza gutxitutako hedabideen emaitzak sistematikoki konparatzen direla elkarrekin eta, horrela, marko europarra ezartzen ahalbidetzen duela.

Gainera, hizkuntz komunitate osoa hartzen da, banaketa administratibo edo politikoetatik at, euskara, irlandera, samiera eta frasieraren kasuetan gertatzen den bezala.

Azterketa honek bederatzi hizkuntza gutxituekin —euskara, galesa, galiziera, irlandera, frasiera, samiera, gaeliko eskoziarra, bretoiara eta korsikera— zuzenean erlazonaturiko online albisteen estaldura ikertzen du, eta hainbat aldagairekin erlazonatzen ditu, alegia, aztertutako hedabideen jabegoarekin; albisteen izaera eta tipologiarekin; protagonisten soslaiarekin, generoa barne; eta besarkatzen duten *topos* geografikoarekin. Gainera, hizkuntza gutxituetako medioek beren hizkuntzari buruz egiten duten estaldura informatiboa eta hedabide nagusiek egiten dutena ere konparatzen dira.

Egindako ikerketa hau hedabideek betetzen duten funtzio sozialean kokatzen da (Christians; Glasser; McQuail & Nordenstr, 2009), hau da, *framing*-ari dagozkion marko teorikoetan eta/edo bigarren mailako agendaren ezarpenean.

Hedabideen erantzukizuna, haren rol eta funtzioak XX. mendearen hasieratik aztertuak izan dira (Sádaba, 2001) hainbat ikuspegitatik (Christians; Glasser; McQuail, & Nordenstr, 2009). Funtzioei dagokienez, hauek dira nagusiak: jagoletza, kritika, irismena eta parte-hartzea, komunitate partekatua eraikuntza (McQuail, 2000) eta herritartasun aktiboaren sustapena (Croteau & Hoynes, 2001).

Hizkuntza biziberritu eta sendotzea eta, aldi berean, hizkuntza gutxituan berariazko esfera publikoa sortu eta indarberitzea (Browne, 2005) hizkuntza gutxituetako hedabideen kasuan lehenago aipatutako funtzioei gehitu behar zaizkie. Hortik dator hizkuntza gutxituekin zerikusia duten albisteen estaldura eta soslaia kokatu eta analizatzearen premia.

Framing-ari buruzko teoriak, Goffmanen hedabideen enkoaraketaren analisiarekin (1974) erlazioak, adierazten dute nola informazioaren estalduraren fokua gai baten inguruan kokatzen den, eta azpimarratzen da audientzia hartaz errazago jabetu dadin. Gainera, gaiari ikuspegi eta interpretazio-marko berariazkoak eskaintzen zaizkio (Entman, 1993; De Vreese, 2005), haren ulermenean eragina izan dezaketenak (Scheufele, 2007). Bigarren mailako agendaren finkatzeak *framing*-aren proposizio teoriko parekoa aurkezten du (Sádaba, 2001). Entman-ek, bere aldetik, lau aldagai seinatu zituen: nabarmentasuna; agentzia; kategorizazioa edo ebaluazio moralak eta orokortasuna, hau da, nola erlazioak diren lau gai horiek. Beste autore batzuek (Lyengar *et al.*, 1993) bi *framing* mota aurkeztu dituzte: *framing* tematikoa, eta inoizkoa edo aldizkakoa. Bere aldetik De Vreese-k (De Vreese, 2005) *framing* tematikoak eta generikoak proposatu zituen.

Badira hainbat ikerketa akademiko hizkuntza gutxituei buruz, ikuspuntu anitzekoak, baina, aldi berean, «azpiko parekotasun handia behatzen da ikerketa-problemetan» (Gorter, 1989). Beste alde batetik, lan horietako asko komunitate bakarrei buruzkoak dira (Hogan-Brun, 2003; Cormack, 2016), eta horrek zeharkako korrelazioak besterik ez du ahalbidetzen, ebaluazio sistematikoki konparatiboen ordez.

Hedabideei eta hizkuntza gutxituei dagokienez, ikertutako gaiak aniztasun hori erakusten dute. Hedabide digitalei erreparatzen bazaie, sare sozialak eta Internet oro har, argitalpen-sail esanguratsua dago (Moring, 2007; Zabaleta *et al.*, 2013; 2014; Ferré-Pavia *et al.*, 2018). 1992an, Riggins-ek gutxiengo etnikoen hedabideen garrantzia nabarmendu zuen jabetze etnikoaren prozesuan eta estatuek zabalduko bost eredu azaldu zituen estrategia mediatikoei buruz (integrazionista, ekonomikoa, zatitzailea, prebentziozkoa eta proselitista); 2012an Jones eta Uribe-Jongbloed-ek konbergentziaz eta industria sortzaileei buruz ikertu zuten eta Moring-ek 2007an osotasun funtzionalaren teoria garatu zuen hizkuntza gutxituetako hedabideei dagokienez.

Kazetaritza-enpresa pribatuen eta publikoen artean, eduki-ekoizpenari dagokionez dauden aldeei erreparatzean, kontuan hartu beharreko beste aspektu bat da publikoari eskaintzen zaion informazioaren eta hedabideen jabegoaren arteko erlazioa (Aalberg eta Curran, 2012). Ere hori ere sarri aztertua izan da eta funtsezkotzat jotzen da hedabide eta demokraziari buruzko eztabaidan. Fokuratzea zabalduz, ikertzaile batzuek «edozein instituzio edo merkatu mediatikoren mugaz harago defendatzen dute medioen jabegoa» (Schlosberg, 2016, 7. or.). Gainera, diferentzia nazionalak ere nabarmenak dira audientziaren eskarian, merkatuaren egituraren eta medioen arautzean (Levy & Nielsen, 2010). Hizkuntza gutxituetako hedabideen sistemei dagokienez, hainbat ikertzailek aniztasuna erreklamatzeko dute jabegoan, medio motan eta edukian (Broughton Micova, 2013; Moring & Dunbar, 2008).

Hurrengo orrialdeetan, ikerketaren helburuen berri ematen da, atal horretan ere ikerketa-galdera zehatzak zerrendatzen ditugularik. Jarraian, metodologiaren tarte heldu da eta, besteak beste, aztertu ditugun hedabideen eta albisteen laginaren inguruko argibideak ematen dira. Horretaz gain, albisteen kodeketa eta horren fidagarritasun-prozedura ere azaltzen da. Metodologian, azkenik, berrien kategoria-sistema aurkezten dugu. Eraitzen atalean, estaldura, jabegoa, hizkuntzen arteko konparaketa, eta albisteen tipologia, ezaugarriak, protagonistak eta baita foku geografikoaren gaineko datuak ere partekatzen dira. Bukatzeko, ondorioak laburbildu eta eztabaidarako atea irekitzen dugu.

2. Helburua

Ikerketa honen bi helburu nagusiak hauek dira: hizkuntza komunitate euskaldun, galestar, galiziar, irlandar, bretoi, frisiar, sami, korsikar eta gaeliko eskoziarreko online hedabideek hizkuntza gutxituari buruz argitaraturikoen kantitatea eta enkoadraketa ezagutzeko. Aipaturiko estaldurari buruzko enkoadraketa edo *framing*-a ezartzeko xedez, honako ezaugarri hauek aztertu dira: informazioen izaera, tipologia eta *topos*-a, eta baita protagonisten soslai eta generoa ere. Aurrekotik eratorrita, honako ikerketa-galdera hauek (IG) sortzen dira:

1. IG: Zer estaldura ematen diete hizkuntza gutxituetako online hedabideek beren hizkuntzari buruzko albisteei? Eta hizkuntza nagusietako hedabideek?
2. IG: Ba al du eraginik hedabideen «jabego» aldagaiak hizkuntza gutxituei buruzko online hedabideek ematen duten tratamenduan?
3. IG: Zeintzuk dira albisteen izaera eta tipologia hizkuntza gutxituari buruz?
4. IG: Zein *topos* edo eremu geografiko hartzen dute hizkuntzari buruzko albisteei hizkuntza gutxituetako online hedabideetan?
5. IG: Zein da hizkuntza gutxituarekin erlazionaturiko albisteen protagonisten soslai eta generoa?

3. Metodologia

Aurkezten ari den ikerketaren metodologiari dagokionez, online albisteen estaldura eta enkoadraketa edo *framing*-a analisi kuantitatiboan oinarritzen da, zeinen edukia bederatziz hizkuntz komunitate europarreko hizkuntza gutxituei dagokien. Analisiak planteaturiko bost ikerketa-galderei (IG) erantzuten die.

Aztertu nahi diren hedabideen unibertsoak lau hizkuntza gutxitutako online plataforma nagusiak hartzen ditu, hau da, egunkarietako webgune, asteroko aldizkari, irrati- eta telebista-kanal eta elebakarrak diren hedabide digital jatorrizkoak (edukien % 70 baino gehiago haien hizkuntzan), eta haien edukiak egunero edo astero aktualizatuak izan ohi dira.

2018an, 2021ean egiaztatua, 31 hedabide handi zeuden bederatziz komunitateetan (Zabaleta *et al.*, 2019). Irrati-difusioko korporazio publiko batzuetan —adibidez, euskaldunear, galiziarrean, galestarrean, frisiarrean, samian eta gaeliko-eskoziarrean— ohiko irrati- eta telebista-kate nagusiek webgune komuna partekatzen dutenez beren online eduki informatiboetarako, 24 online plataforma dira zehazki.

Artikulu honen bitartez plazaratzen dugun ikerketa honetan aztertzen ditugun online plataformak 20 dira, hau da, errolda osoaren % 65, eta zehazki komunitate bakoitzaren online kazetaritza-edukiak ordezkatzeko dituzte: hiruna hedabide komunitate galiziarrean, euskaldunear eta irlandarrean; bina hedabide galestarrean, frisiarrean, samian, bretoian eta korsikarrean; eta bat gaeliko-eskoziarrean¹.

Hedabideen «jabego» aldagaiari dagokionez, zortzi pribatuak dira eta sei komunitatetan daude (komunitate gaeliko-eskoziarrean, bretoian eta korsikarrean izan ezik); zortzi publikoak dira, zazpi komunitatetan banatuta (komunitate bretoian eta korsikarrean izan ezik); eta lau gizarte-jabegokoak dira, komunitate bretoian eta korsikarrean.

Aztergai dugun online edukia 2018ko laugarren hiruhilekoari dagokio. Denboralagina aste konposatua da, 2018ko urriaren 25etik abenduaren 12ra bitartean aste-eta egun-estratifikazioz aterata. Komunitate bretoiaren eta korsikararren kasuetan, hango albiste-argitaratzearen erritmo murrizta kontuan hartuta, lau egun gehitu eta hamaikako lagin osoraino iritsi da.

1. Euskal komunitatean: *Berria* egunkaria (www.berria.eus); *Argia* astekari inprimatua (www.argia.eus); eta EITB euskal irrati-telebista publikoa (www.eitb.eus). Hizkuntz komunitate galestarrean: Gales BBCren ziberhedabidea (bbc.com/cymrufyw) eta *Golwg* astekaria (<https://golwg360.cymru/>). Komunitate galiziarrean: La Corporación de Radio y Televisión de Galicia CRTVG Galiziako Irrati Telebista Korporazioa (www.crtvg.es); *Sermos Galiza* astekari inprimatua (www.sermosgaliza.gal, 2019az geroztik *Nósdíario* bihurtua, www.nosdiario.gal); eta *Galicia Hoxe* eguneroko ziberhedabidea (www.galiciahoxe.com), 2020an itxia. Hizkuntz komunitate irlandarrean: Raidió na Gaeltachta (www.rte.ie/mag), TG4 (www.tg4.ie), eta Tuarisc.ie ziberhedabidea (<https://tuairisc.ie>). Frisiar komunitatean: Omrop Fryslân Corporation of Radio and TV (www.omropfryslan.nl) eta *It Nijts* digitala (www.itnijts.frl). Komunitate gaeliko-eskoziarrean: BBCren albisteen online plataforma (www.bbc.com/naidheachdan). Samien komunitatea: NRK Sápmi (www.nrk.no/sapmi/) eta *Avir* egunkaria (www.avvir.no). Komunitate bretoian: Agence Bretagne Presse-ABP e brezhoneg ziberhedabidea (<http://abp.bzh/index.php>), eta BWB Brezhoweb (www.brezhoweb.com), honela definitzen dena: «*La première chaîne de télévision sur internet 100% en langue bretonne*». Komunitate korsikarrean: *A Piazzetta* elebakarra (<https://www.apiazzetta.com>) eta *Arritti* (<http://arritti.corsica/>) astekari elebiduna.

2.622 online albiste edo informazio kodifikatuk osatzen dute ikerketa honen lagina. Lagin honek bederatzi hizkuntz komunitateetan jasotako informazioak ordezkatzeko ditu: 631 euskaraz; 361 galesez; 507 galizieraz; 405 irlandaraz; 260 frasieraz; 134 samieraz; 125 gaeliko eskoziarrez; 115 bretoieraz; eta 85 korsikeraz. Bazter geratu dira telebista- edo irrati-programazio tradizionalekin erlazonaturiko edukiak eta iragarki orokorrak.

% 99ko konfiantza-maila izanik, 2.622 artikuluko lagin osoaren konfiantza-tartea % 2,49koa da. Komunitateka hartuta, bost sistema mediatikoren laginek (euskalduna, galesa, galiziarra, irlandarra eta frisiarra) % 95eko konfiantza-maila baino % 6 puntu gutxiago daukate. Azkenik, gainerako lau komunitateetan (samia, gaeliko-eskoziarra, bretoaia eta korsikarra), konfiantza-tartea % 10 baino txikiagoa da. Beraz, esan daiteke, oro har, laginen tamainak egokiak izan direla ikerketa-galderei (IG) begira.

Laginean sartutako albisteak hasierako orrian edo web orrietako albiste-orrian argitaratutakoak dira.

Hizkuntza nagusietan ere idatzitako online hedabide askotan gertatu ohi denez, egunaren bukaeran azalean agertzen diren albisteak ez dira soilik egun horretan bertan ekoiztu eta landutakoak, lehenagoko beste batzuk ere agertzen dira. Hartara, albiste bat aste konposatuaren egun ezberdinetan agertuko balitz, behin bakarrik kodifikatuko litzateke. Esan beharra dago, web orriak Europa Ertaineko (CET) ordu-eremu barruan jaitsi dira, 16:00 eta 20:00 bitartean, metodoaren koherentzia eta albiste-ekoizpenaren egutegia mantentzearen. Hizkuntzen arteko kontrastea eta analisi estatistikoa egite aldera, lehenago aipatutako laginari hizkuntza nagusietan (espainiera, ingelesa, etab.) idatzitako eskualde-egunkarietako azterketa bat sartu zaio. Horrela, lau komunitatetan egunkari garrantzitsu bat, hizkuntza nagusian eta hizkuntz komunitatearen eremu geografikoan bertan argitaratua, aukeratu da. Webguneko lehen orrian bi asteko epean, 2020ko otsail, uztail, abuztu eta irailean argitaratutako online albiste guztiak osatuta dago. 9.259 online albistek osatzen dute laginaren tamaina. Jarraian, hizkuntza gutxituarekiko erlazio zuzenaren arabera kodetu dira, hizkuntza nagusian idatzitako online hedabideetako laginarekin egin den bezalaxe, eta emaitzak alderatu dira.

3.1. Kodetze- eta fidagarritasun-prozedura

Kodetze-prozesuak hainbat urrats izan ditu: bibliografia akademikoan oinarrituriko behin-behineko kategoria-sistemak, ikerketa pilotua, ikertalde osoaren laginkako kodetzea formakuntza sakona egin eta ikertzaile nagusiak egiaztatu ondoren. Aztertutako hizkuntza gehienak ez-parekoak direlarik, hizkuntz koherentzia eta kodetzearen fidagarritasuna nabarmenak izan dira oso. Euskal eta galiziar komunitateei dagokienez, jatorrizko hiztunek kodetu dute albisteen edukia. Gainerakoetan, eduki osoa ingelesera itzuli da, izan itzulpen-softwarearen bitartez, izan bertoko hiztun eta kazetari baten lanari esker, adibidez samierazko hedabideetan.

Lau kodetzailen arteko fidagarritasuna % 95,3koa izan da, 106 kodetze-unitate prozesatu ondoren.

Kodetzearen fidagarritasuna bermatze aldera, gehigarri bezala, landa-laneko bisitetan eta aurrez aurreko elkarrizketetan, hedabide irlandar, galestar eta frisiarreko editore/zuzentzaileei albiste-sail bat aurkeztu zaie, beren hizkuntzan idatzia, berek kode ditzaten. Kodetze-erabaki horiek ikertaldearen kodetzeekin konparatu dira eta kongruentzia-gradu osoa % 92,5ekoa izan da (% 90,0koa irlanderan eta % 97,5ekoa frasieran).

Neurketa-maila nominala izan da, eta analisi-unitatea albiste osoa da.

3.2. Katgoria-sistema

Aurrera atera dugun ikerketan eta artikulu honetan ikus daitekeen moduan, katgoria-sistemak bi areatan banatzen dira: estaldura eta haren ezaugarriak, lehendabizikoa bi parametroren bidez analizatu da: informazioaren erlazio zuzena edo ez hizkuntza gutxituarekin, eta hedabideen jabego mota. Bigarren, hau da, ikerketa honetarako egokitzat jotako enkoaraketa edo *framing*-aren ezaugarriak honako hauek izan dira: 1) albisteen erlazio mota hizkuntza gutxituarekin; 2) eduki mota; 3) intereseko *topos* edo area geografikoa; eta (4) albisteeetako protagonisten soslai eta generoa.

Hizkuntza gutxituarekiko erlazio zuzena deritzan katgoria operatiboki honela definitu da: hizkuntza gutxituarekin erlazio edo konexio nabarmena duen albiste, edozein delarik albistearen gai nagusia.

Estaldura informatiboa hedabideen jabegoari begira ere analizatu da (Zabaleta *et al.*, 2015), enpresa informatibo publikoko (erakunde publikoenak edo haiek administratuak), pribatuko (irabazi-asmoko enpresak) eta jabego sozialekoen (irabazi-asmorik gabeak) eduki edo egindako kazetaritzaren arteko alde posibleak detektatzeko asmoz.

Hizkuntzen arteko eta analisi estatistikoarekiko konparaketari dagokionez, mintzairarekin erlazonaturiko albisteen emaitza bi era ezberdinez ebaluatu da. Batetik, hizkuntza ezberdinetako hedabideen arteko kontrastea eginez eta, bestetik, proba estatistikoa hizkuntza gutxituko hedabideetan eginez.

Hedabideen arteko kontrastea egin da mintzairarekin erlazonaturiko hizkuntza gutxituetako hedabideetako online albisteak hizkuntza nagusian (espainola, ingelesa, etab.) idatzita dauden eskualdeko egunkarietakoekin alderatuz. Horretarako, bederatzi komunitateetan egunkari nabarmen bana² aukeratu da, hizkuntza nagusian idatzia eta hizkuntz komunitate berebereko eremu geografiko berean.

2. Euskal Herria: *Diario Vasco*, www.diariovasco.com/. Gales: *Western Mail/Wales Online*, www.walesonline.co.uk/. Galizia: *La Voz de Galicia*, www.lavozdegalicia.es/. Irlanda: *The Independent*, www.independent.ie/. Friesland: *Leeuwarder Courant*, www.lc.nl/. Eskozia: *The Herald*, www.heraldscotland.com/. Britainia: *Le Telegramme- Bretagne*, www.letelegramme.fr/. Korsika: *Corse Matin*, www.corsematin.com/. Sami (Troms og Finnmark county): *Nordlys*, www.nordlys.no/.

Proba estatistikorako khi karratu deritzan testa aplikatu da, egokia baita enpirikoki lortutako maiztasunak balizko suposizio teorikopean (neurketa-maila nominala, lagin aleatorio independenteak eta hipotesi nulua, hau da, behatutako maiztasunen eta ausaz itxarondakoen artean alderik ez izatea) lortzea espero direnekin alderatuz, nabarmen desberdinak ote diren ebaluatzeko.

Estalduraren ezaugarri edo kategoriei dagokienez, bi modutan aztertu da, alde batetik, hizkuntza gutxituarekiko erlazio mota ulertuz eta, beste alde batetik, albistearen eduki mota identifikatuz. Aldi berean, hizkuntza gutxituarekiko albisteen erlazio mota zenbait koderi jarraikiz antolatu da. Hala nola (1) kexa, hautemandako diskriminazio mota batengatik; (2) protesta, operatiboki hola definitua, hots, jarduera edo kontzentrazio publikoak, adibidez, hizkuntzari emandako tratua salatu edo babesten dutenak; (3) goraipamena, alegia, hizkuntzaren aldeko adierazpenak; (4) babesa, hizkuntzaren aldeko jarduera guztiak, bere sustapenera bideratuak alegia, adibidez literatur lehiaketak; (5) garapena, hau da, hizkuntzaren garapen-ekintzei (hiztegiak, ikastaroak, finantzaketa publikoa, hizkuntz irakaskuntza, etab.) buruzko albiste errealez informatzen duten albisteak; eta (6) beste albiste mota batzuk.

Arestian aipatu ditugun eduki motei dagokienez, ondoren zerrendatzen diren kategorien arabera sailkatu dira albisteak: politika, ekonomia, kultura, hizkuntza (berariaz arazo linguistikoei buruzkoak), zientzia eta hezkuntza, istripuak eta delinkuentzia, kirola, entretenimendua, bidaiak, Internet eta hedabideak, bizitza komunitarioa (giza intereseko istorioak), generoa (feminismoa eta antzeko arazoak barne), erlijioa eta espiritualtasuna, osasuna eta, azkenik, beste batzuk.

Albisteen protagonisten ideologiari dagokionez, hau da kazetaritza-errelatoen aktore/agente nagusiak direnak, ikerketa honetan ondoko mota- eta genero-kategoriak ezarri dira:

- Mota: erakundea/enpresa (gubernua eta enpresak, entitate gisa aurkeztuak), ordezkaria (politikoak, erakunde sozialen eta politikoen ordezkariak), artista/kirolaria, jende arrunta eta beste batzuk.
- Generoa: maskulinoa, femeninoa eta biak. «Genero» aldagaia oso garrantzitsua da, baina maiz ahaztua edo agendari buruzko ikerketatik baztertua izan da (Kenney, 2003).

Topos kontzeptuari dagokionez, «tokia» esan nahi duen termino grekoa, edo, albisteak duen nabarmentasunaren eta arretagunearen «foku geografikoa» edo interesgunea denotatzen duena da. Ezarri diren kategoriak hauek dira: tokikoa, inte-resgunea hirian, eskualdean edo probintzian duena; komunitarioa, albisteak hizkuntz komunitatearekin edo komunitate politikoarekin orokorrean erlazioa daukanean; estatala, herrialde osoarekin (Frantzia, Espainia, Erresuma Batua, adibidez) zerikusia duten informazioen kasuan; nazioartekoa, beste herrialde edo instituzioei dagokienean; eta beste batzuk.

4. Emaitzak

Emaitzen atalean, lau alderditan finkatuko gara; lehendabizikoan, estaldura, jabegoa eta hizkuntzen arteko konparaketa aztertu dira; bigarrenen, estaldura eta tipologia aztertu dira eta horren arabera albistek hizkuntzarekiko erakusten duten izaeran arreta jarri dugu, hots, albistek hizkuntzaren garapenarekin, babesarekin edo kexa eta protestekin erlasionaturiko estaldurarik ote duten galdetzen da; atal honetan ere eduki mota bildu eta behatzen zaio; hirugarren alderdia protagonistei eskainia dago, eta laugarrena foku geografikoari, esan nahi baita, berriak zer esparru geografikorekin harremana duen.

4.1. Estaldura, jabegoa eta hizkuntzen arteko konparaketa

Europan, hizkuntza gutxituetako hedabideen online albisteen % 16,4k erlazio zuzena daukate mintzaira gutxituarekin. Aldiz, hizkuntza hegemonikoa (espainola, ingelesa, frantsesa, holandarra) darabilten hedabideen web orrietan argitaratutako albisteen % 2,1ek soilik daukate erlazioa hizkuntza gutxituarekin. Aldea biribila da.

Hizkuntz komunitate galestarrean eta frisiarrean, mintzairari dagokion online informazioa gutxi gorabehera zortzi puntu txikiagoa da Europako balioarekiko, hau da, zifra esanguratsua. Kontrako aldean, albiste online irlandarrak bere hizkuntzarekin erlasionatuak % 6 altuagoak dira. Beste bost komunitatetan (euskaldunear, galiziarrean, samian, gaeliko-eskoziarrean eta korsikarrean) beren balioak ehuneko europarraren parekoak dira tolerantzia-tarteko ehunekoen barruan. Azkenik, komunitate bretoian, mintzairarekiko harreman zuzena daukaten albisteen ehunekoa % 50,4 da, hots, balio europarraren % 34. Garrantziko desbideraketa hori da bere online hedabideak batik bat hizkuntzaren garapenean eta harekin erlasionaturiko informazioetan zentratzen direlako.

Emaitzen garrantzi estatistikoa ebaluatzeko, khi karratuaren independentzia-proba egin da, eta hala erlazio hau aztertua izan da, hots, hizkuntza gutxituarekin zerikusia duten online albisteen eta hizkuntza nagusiko hedabide garrantzitsuko online albisteen artekoa. Bi aldagai horien erlazioa esanguratsua izan da: $X^2(8, N = 2.622) = 149,513, p = < 0,01$. Beraz, ausazko probabilitatetik harago, diferentzia estatistikoki nabarmenak daude bederatzi hizkuntz komunitateetako zifren artean, hizkuntzarekin erlasionaturiko albisteen artean³.

3. Kontuan hartu behar da hizkuntz komunitate korsikarrak eta bretoiak ez daukatela eguneroko hedabiderik.

1. taula. Hizkuntza gutxituarekin erlazonaturiko albisteak.

(1) (2)	Hizkuntza gutxituetako webguneak			Hizkuntza nagusietako webguneak		
	Erlaziorik bai	Erlaziorik ez	Guztira	Erlaziorik bai	Erlaziorik ez	Guztira
Euskalduna	% 16,0	% 84,0	% 100,0	% 6,3	% 93,7	% 100,0
Pribatua	% 19,8	% 80,2	% 100,0			
Publikoa	% 7,9	% 92,1	% 100,0			
Galesa	% 8,0	% 92,0	% 100,0	% 0,0	% 100,0	% 100,0
Pribatua	% 11,5	% 88,5	% 100,0			
Publikoa	% 3,3	% 96,7	% 100,0			
Galiziarra	% 11,6	% 88,4	% 100,0	% 4,1	% 95,9	% 100,0
Pribatua	% 19,9	% 80,1	% 100,0			
Publikoa	% 3,5	% 96,5	% 100,0			
Irlandarra	% 23,0	% 77,0	% 100,0	% 0,2	% 99,8	% 100,0
Pribatua	% 54,6	% 45,4	% 100,0			
Publikoa	% 13,0	% 87,0	% 100,0			
Frisiarra	% 8,9	% 91,1	% 100,0	% 1,9	% 98,1	% 100,0
Pribatua	% 18,4	% 81,6	% 100,0			
Publikoa	% 4,1%	% 95,9	% 100,0			
Samia	% 18,7	% 81,3	% 100,0	% 0,4	% 99,6	% 100,0
Pribatua	% 15,3	% 84,7	% 100,0			
Publikoa	% 27,8	% 72,2	% 100,0			
Gaeliko-eskoziarra	% 20,8	% 79,2	% 100,0	% 0,9	% 99,1	% 100,0
Publikoa	% 20,8	% 79,2	% 100,0			
Bretoaia	% 50,4	% 49,6	% 100,0	% 1,4	% 98,6	% 100,0
Soziala	% 50,4	% 49,6	% 100,0			
Korsikarra	% 18,8	% 81,2	% 100,0	% 1,2	% 98,8	% 100,0
Soziala	% 18,8	% 81,2	% 100,0			
Guztira	% 16,4	% 83,6	% 100,0	% 2,1	% 97,9	% 100,0

Iturria: Egileak. N: 2.622 informazioa hizkuntza gutxituetako online hedabideetan. N = 9.259 informazioa hizkuntza nagusietako webguneetan. Hizkuntza gutxituetan gauzatutako online hedabideen datuei buruzko oharrak: (1) «Komunitateak» aldagaiari aplikatutako khi karratua esanguratsua izan da: $X^2(8, N = 2.622) = 149,513, p = < 0,01$; (2) Komunitateen barruko hedabide publiko eta pribatuei aplikatutako khi karratuaren probaren emaitzak esanguratsuak dira $p < 0,01$ mailan, euskara, gales, galiziera, irlandera eta frasieraren kasuan, baina samierazko emaitzak ez dira esanguratsuak $p < 0,05$ mailan.

Komunitate bakoitzaren errealitatea aztertu eta hedabideen «jabego» aldagaiak hizkuntzarekin zuzenean erlazonaturiko albisteetan daukan eragina kontsideratzean, emaitzak ere estatistikoki esanguratsuak dira. Hedabide publiko

eta pribatu garrantzitsuak dauzkaten sei komunitateetatik bostean (euskalduna, galestarra, galiziarra, irlandarra eta frisiarra), kazetaritza-enpresa pribatuek esanguratsuki ($p < 0,01$) online istorio gehiago argitaratzen dituzte hizkuntza gutxituarekin erlazioatutako hedabide publikoen erakundeek baino. Aldiz, seigarren komunitatean, samian, hedabide publikoetako webguneek arreta gehiago eskaintzen diete hizkuntza gutxituarekin zuzenean erlazioaturiko albisteei hedabide pribatu nagusiek baino, emaitzak esanguratsuak ez diren arren $p = < 0,05$ mailan

Beste hiru komunitateetan hedabide nagusiak soilik publikoak dira (gaeliko-eskoziarra) edo titulartasun sozialekoak (bretoia eta korsikarra), zeinak eragotzi egiten duen «jabego» aldagaiaren konparaketa egitea.

Hizkuntza nagusietako egunkari garrantzitsuetako webguneetan agertzen diren hizkuntza gutxituarekin erlazioaturiko albisteei dagokienez, hizkuntz komunitateka hartutako estaldura hainbat taldetan bana daiteke, zeinak adierazten duen interes desberdina komunitateen arabera. Komunitate euskaldunean eta galiziarrean dauden espainolezko egunkari nagusietan agertzen diren albisteen % 4-6 hizkuntza gutxituari buruz ari dira. Hizkuntza nagusian (holandarra, frantsesa) agertzen diren egunkari digital garrantzitsuenetako plataforma digitaleko online informazioaren % 1-2k zerikusia du hizkuntza gutxituarekin komunitate frisiarrean, bretoian eta korsikarrean. Gales, Irlanda, Sami eta Eskoziako komunitateetan hizkuntza gutxituari buruz hizkuntza nagusian agertzen diren egunkari garrantzitsuenetako online informazioaren estaldura % 1 baino txikiagoa da.

4.2. Estaldura eta tipologia

Enkoadraketa edo *framing* teoriarekin bat, hizkuntza gutxituari buruzko albisteen izaera eta eduki mota deritzen ezaugarriak adierazgarriak dira marko konparatiboa ezartzen laguntzeko. Hori dela eta, atal honetan hizkuntza gutxituari buruzko albisteen izaera eta eduki-kategoriak adierazten dira.

2. taula. Hizkuntza gutxituari buruzko albisteen izaera.

	Garapena	Babesa/laudorioa	Kexa/Protesta	Gutzira
Euskalduna	% 80,2	% 15,8	% 4,0	% 100,0
Galesa	% 79,3	% 6,9	% 13,8	% 100,0
Galiziarra	% 37,3	% 52,5	% 10,2	% 100,0
Irlandarra	% 44,1	% 40,9	% 15,1	% 100,0
Frisiarra	% 73,9	% 21,7	% 4,3	% 100,0
Samia	% 76,0	% 4,0	% 20,0	% 100,0
Gaeliko-eskoziarra	% 38,5	% 46,2	% 15,4	% 100,0
Bretoia	% 48,3	% 46,6	% 5,2	% 100,0
Korsikarra	% 75,0	% 18,8	% 6,3	% 100,0
Gutzira	% 58,8	% 31,4	% 9,8	% 100,0

Iturria: Egileak. N: 2.622 artikulua hizkuntza gutxituetako albisteei buruz.

4.2.1. Izaera ezaugarria

Albisteen izaera ezaugarriari dagokionez, Europan, online albisteen % 58,8 hizkuntzaren garapenari buruzkoak dira (ikastaroak, liburuak, hizkuntz politikak, etab.); % 31,4 hizkuntza gutxituaren goraipamenezkoak; eta % 9,8 hizkuntza dela-eta kexa eta protestei buruzkoak:

- **Hizkuntzaren garapenarekin erlazionaturiko albisteen estaldura.** Bost komunitatetan (euskalduna, galesa, frisiarra, samia eta korsikarra) hizkuntza gutxituaren garapenarekin erlazionaturiko online albisteak balio europarra (% 58) baino aski maizkoagoak (15 eta 20 portzentaje-puntu gehiago) direla jotzen da. Zehazki, euskaldun eta gales kasuetan, beren hizkuntzan hedabide-sistema garrantzitsuarekin biak, beren ehunekoak % 80,2 eta % 79,3 dira, hurrenez hurren. Beste lau komunitateetan (galiziarra, irlandarra, gaeliko-eskoziarra eta bretoia), balio europarra baino % 15-21 gutxiago dira. Azpimarratzekoa da hedabide galiziar eta eskoziar nagusietako web orrietan hizkuntzaren garapenari buruz dagoen albiste-eskasia.
- **Hizkuntzaren babesarekin eta goraipamenarekin erlazionaturiko albisteen estaldura.** Lau komunitatetan (galiziarra, irlandarra, gaeliko-eskoziarra eta bretoia) beren hizkuntza babestu edo goraipatzen duten online albisteen ehunekoa Europan (% 31,4) baino % 10-25 handiagoa da. Beste bost komunitateetan (euskalduna, galesa, frisiarra, samia eta korsikarra) portzentajea % 10-25 txikiagoa da.
- **Kexa eta protestekin erlazionaturiko albisteen estaldura.** Kategoria honetan ez dago alde nabarmenik bederatzi komunitateen artean. Zortzitan ehuneko europarraren (% 9,8) antzekoak dira zifrak, hots, tolerantziaren % 5 barruan daude. Aipatu beharra dago samien (% 20), irlandarren (% 15,1) eta gaeliko-eskoziarren (% 15,4) komunitateetan kexak eta protestak jasotzen dituzten albisteen portzentaje pixka bat handiagoa dagoela.

4.2.2. Eduki mota edo kategoriak

«Hizkuntza eta online albisteak» binomioaren enkoadraketan kontuan hartu behar den bigarren ezaugarria hizkuntzarekin erlazionaturiko albiste ohikoenetako eduki mota edo kategoriak analizatzean datza. Horrela, Europan, online albisteen % 66,8 kultura/hizkuntza edukiko kategorian sar daiteke; % 8,6 Internet/hedabideak kategorian; % 8,1 zientzia eta hezkuntzan; % 6,5 politikan; % 2,3 komunitateari buruzko albisteetan; eta % 7,7 beste kategoria batzuetan (entretanimendua, kirolak, ekonomia, generoa, bidaiak, espiritualtasuna, osasuna eta istripuak/krimena).

3. taula. Hizkuntza gutxituari buruz ari diren eduki-kategoriak.

	Kultura	Hizkuntza	Internet/hedabideak	Zientzia eta hezkuntza	Politika	Komunitatea / Beste batzuk	Guztira
Euskalduna	% 37,6	% 33,7	% 11,9	% 8,9	% 4,0	% 4,0	% 100,0
Galesa	% 62,1	% 3,4	% 10,3	% 6,9	% 0,0	% 17,2	% 100,0
Galiziarra	% 52,5	% 15,3	% 11,9	% 3,4	% 11,9	% 5,1	% 100,0
Irlandarra	% 39,8	% 17,2	% 8,6	% 10,8	% 12,9	% 10,8	% 100,0
Frisiarra	% 43,5	% 34,8	% 4,3	% 8,7	% 4,3	% 4,3	% 100,0
Samia	% 60,0	% 8,0	% 4,0	% 4,0	% 8,0	% 16,0	% 100,0
Gaeliko-eskoziarra	% 38,5	% 42,3	% 7,7	% 3,8	% 3,8	% 3,8	% 100,0
Bretoia	% 31,0	% 36,2	% 0,0	% 8,6	% 1,7	% 22,4	% 100,0
Korsikarra	% 37,5	% 12,5	% 18,8	% 18,8	% 0,0	% 12,5	% 100,0
Guztira	% 42,6	% 24,2	% 8,6	% 8,1	% 6,5	% 10,0	% 100,0

Iturria: Egileak. N: 2.622 informazioa hizkuntza gutxituetako online hedabideetan.

Komunitateka hartuta, kontsistentzia eta parekotasun nabarmena dago ehunekoetan, bost puntuko tolerantzia barruan, eduki ohikoena den kategoria barruan (kultura/hizkuntza) bost hizkuntzatan (euskara, galesa, galiziera, samiera eta bretoiera). Positiboki desbideratzen dira emaitzak zifra europarretik, hizkuntz komunitate frisiarrearantz eta gaeliko-eskoziarrearantz % 11,5 eta % 14, hurrenez hurren.

Kontrako aldean online hedabide irlandarrak eta korsikarrak daude, non hizkuntza gutxituarekin erlazio naturiko kultura eta hizkuntzari buruzko albisteak zifra europarra baino % 9 eta % 16 txikiagoak diren.

Hizkuntza gutxituarekin erlazio naturiko albiste-ehunekoa duten gainerako eduki-kategorietan (Internet/hedabideak, zientzia/hezkuntza, politika, komunitatea), parekotasun esanguratsua dago bederatzi komunitateen artean, eta balio europarrekiko aldea goiti-beheiti % 5ekoa baino txikiagoa da ia kasu guztietan.

4.3. Protagonistak

Online informazioetako protagonisten emaitzek aniztasun handia erakusten dute. Europari dagokionez, albisteen % 40,9ren protagonismoa instituzio baten ordezkariari edo instituzioari berari ematen zaio. Lagin nagusiaren % 34,2n protagonista nagusia artista edo kirolaria da eta % 16,3n pertsona arrunta. Komunitatez komunitate:

- **Instituzioaren ordezkaria/instituzioa.** Hiru komunitatek tolerantziaren % 5 azpiko balioak dauzkate, komunitate korsikarrak (% 31,3), galesak (% 24,1) eta samiak (% 12,0). Kontrara, beste hiru komunitate batezbestekotik % 5 gorago kokatzen dira, hau da, frisiarra (% 52,2), galiziarra (% 50,8) eta euskalduna (% 50,5). Gainerakoak —bretoia (% 39,7), irlandarra (% 38,7) eta gaeliko-eskoziarra (% 34,6)— batezbesteko europarrera hurbiltzen dira.

- **Artistak/kirolariak.** Samiek (% 52,0) eta irlandarrek (% 45,2) batik bat artista eta kirolariengan daukate arreta eta batezbesteko europarretik nabarmenki gorago daude. Kontrakoa gertatzen da beste komunitate hauetan: gaeliko-eskoziarrean (% 15,4), korsikarrean (% 18,8), bretoian (% 24,1) eta frisiarrean (% 26,1), batezbesteko emaitzaren azpitik baitaude. Albiste euskaldunak (% 35,6), galiziarak (% 35,6) eta galesak (% 27,6) balio europarrera gehien hurbiltzen direnak dira.
- **Pertsona arruntak.** Pertsona arruntei dagozkien datuak interesgarriak dira, protagonismoari dagokionez. Horrela, batezbesteko europarrarekin alderatuz, hizkuntz komunitate gaeliko-eskoziarrak ia hirukoiztu egiten du oinezko herritarrei eskaintzen dien espazio informatiboa (% 46,2); bretoiak bide berean doaz (% 32,8), galesak ere bai (% 27,6), halere ez hain nabarmenki. Kontrako zentzuan, pertsona anonimo edo herritarrei arreta gutxien ematen dien hizkuntz komunitatea irlandarra da (% 3,2), ondoren frisiarra (% 4,3), galiziarra (% 11,9), korsikarra (% 12,5) eta euskalduna (% 13,9). Komunitate samia datuak zifra europarraren parekoak dira, tolerantzia-tartearen ehuneko bost puntuen barruan.

4. taula. Protagonisten soslai eta generoa.

	Soslai					Generoa			
	Ordezkaría Instituzioa	Artistak Kirolariak	Pertsona arruntak	Beste	Guztira	Gizona	Emak.	Biak	Guztira
Euskalduna	% 50,5	% 35,6	% 13,9	% 0,0	% 100,0	% 55,00	% 28,33	% 16,67	% 100,0
Galesa	% 24,1	% 27,6	% 24,1	% 24,1	% 100,0	% 54,55	% 45,4	% 0,00	% 100,0
Galiziarra	% 50,8	% 35,6	% 11,9	% 1,7	% 100,0	% 47,62	% 33,33	% 19,05	% 100,0
Irlandarra	% 38,7	% 45,2	% 3,2	% 12,9	% 100,0	% 81,13	% 11,32	% 7,55	% 100,0
Frisiarra	% 52,2	% 26,1	% 4,3	% 17,4	% 100,0	% 64,29	% 7,14	% 28,57	% 100,0
Samia	% 12,0	% 52,0	% 20,0	% 16,0	% 100,0	% 21,43	% 71,43	% 7,14	% 100,0
Gaeliko-eskoziarra	% 34,6	% 15,4	% 46,2	% 3,8	% 100,0	% 50,00	% 50,00	% 0,00	% 100,0
Bretoia	% 39,7	% 24,1	% 32,8	% 3,4	% 100,0	% 42,42	% 30,30	% 27,2	% 100,0
Korsikarra	% 31,3	% 18,8	% 12,5	% 37,5	% 100,0	% 85,71	% 0,00	% 4,29	% 100,0
Guztira	% 40,9	% 34,2	% 16,3	% 8,	% 100,0	% 57,0	% 27,6	% 15,2	% 100,0

Iturria: Egileak. N: 2.622 informazioa hizkuntza gutxituetako online hedabideetan.

Generoari dagokionez, azpimarratzekoa da, Europan, informazioaren % 57,02 gizon batek protagonizatzen duela; % 27,69 emakume batek, eta % 15,29 biek. Datu horiek komunitateka bereiziz:

- **Gizona:** hedabide irlandarrak, korsikarrak eta frisiarrak dira emakumezkoen arreta gutxien ematen dietenak; izan ere, komunitate horietan albisten % 85,71, % 81,13 eta % 4,29, hurrenez hurren, gizon batek protagonizatuak baitira. Komunitate galesean (% 54,55), euskaldunetan (% 55,0) eta

gaeliko-eskoziarrean (% 50,0), apenas dago diferentziarik batezbesteko europarrarekin eta, azkenik, samiak, oso azpitik geratzen dira (% 21,43).

- **Emakumea:** informazio-zerbitzu samiek hizkuntzari emandako albisteen % 71,4 eskaintzen dizkiote emakumeari eta, hola, aise gainditzen dute batezbesteko europarra. Ildo berean, komunitate galesak (% 45,4) eta gaeliko-eskoziarrak (% 50,0) beste komunitateek baino albiste gehiago irakur ditzakete emakumeei buruz. Galiziarrek (% 33,3), euskaldunek (% 28,3) eta bretoiek (% 30,3) batezbesteko europarrarekiko balio hurbilak daukate. Azterketa honen laginean ez da albiste bakar bat aurkitu komunitate korsikarrean emakumea protagonista duenik eta soilik % 7,14 eta % 11,3 hedabide frisiarretan eta irlandarretan.
- **Biak:** albiste frisiarren %28,5ek eta bretoien %27,2k gizonak eta emakumeak daukate protagonista, hau da, gaur egun batezbesteko europarraren buruan daude. Informazio galiziarra (% 19,0), euskalduna (% 16,6) eta korsikarra (% 14,2) batezbesteko europarretik bost puntu beherago daude. Azkenik, batezbestekoa baino beherago daude irlandarrak (% 7,55), samiak (% 7,14), galesak eta gaeliko-eskoziarrak, zeinek ez baitute bietako jendeak protagonistatutako albisterik argitaratu.

4.4. Topos-ak

Europako hizkuntza gutxituetako hedabideetan mintzaira propioarekin erlazonaturiko albistek erakusten duten *topos*-ak edo «foku geografikoak» batik bat komunitatearekin du zerikusia (% 68,8). Bigarrenik, (soilik % 18,8) foku geografikoa tokikoa duten albisteak daude. Estatu eta nazioarteko albistek, baturik, apenas gainditzen dute osotasunaren % 10. Aldiz, azpimarratzekoa da tendentzia hori modu ez parekoan banatzen dela hizkuntz komunitate batetik bestera.

5. taula. Hizkuntza gutxituarekin erlazonaturiko informazioaren *topos*-a.

	Komunitatea	Tokikoa	Estatala	Nazioartekoa	Guztira
Euskalduna	% 57,4	% 34,7	% 5,0	% 3,0	% 100,0
Galesa	% 89,7	6% ,9	% 3,4	% 0,0	% 100,0
Galiziarra	% 57,6	% 22,0	% 11,9	% 8,5	% 100,0
Irlandarra	% 69,9	% 6,5	% 22,6	% 1,1	% 100,0
Frisiarra	% 82,6	% 4,3	% 0,0	% 13,0	% 100,0
Samia	% 88,0	% 8,0	% 4,0	% 0,0	% 100,0
Gaeliko-eskoziarra	% 61,5	% 26,9	% 11,5	% 0,0	% 100,0
Bretoia	% 72,4	% 22,4	% 3,4	% 1,7	% 100,0
Korsikarra	% 87,5	% 12,5	% 0,0	% 0,0	% 100,0
Guztira	% 68,8	% 18,8	% 9,3	% 3,0	% 100,0

Iturria: Egileak N: 2.622 informazioa hizkuntza gutxituetako online hedabideetan.

- **Komunitatea:** galesek (% 89,7), samiek (% 88,0), korsikarrek (% 87,5) eta frisiarrek (% 82,6) batik bat beren komunitatean ipintzen dute fokua, hizkuntzaz ari direnean. Bretoiak (% 72,4), irlandarrak (% 69,9) eta gaeliko-eskoziarrak (% 61,5) bat datoz batezbesteko europarrarekin; eta galiziarak (% 57,6) eta euskaldunak (% 57,4), hamar puntu beherago geratzen dira.
- **Tokikoa:** alde hauek nabarmenago geratzen dira tokiko *topos*-ari dagozkion albisteak aztertzen direnean. Hartara, euskaraz (% 34,7), galizieraz (% 22,0), eta gaeliko eskoziarrez (% 26,9) hedabideetako ehunekoek nabarmenki gaintitzen dute batezbestekoa. Aldiz, samieraz (% 8,0), galesez (% 6,9) eta frisieraz (% 4,3) batezbestekotik hamar puntu baino beherago geratzen dira.
- **Estatala:** estatu-mailako albisteei dagokienez, irlandarazko hedabideetako albisteen ehunekoa % 22,6 garrantzitsura iristen da, eta ondoren komunitate gaeliko-eskoziarra (% 11,5).
- **Nazioartekoa:** nazioarteko albisteei dagokienez, berriz, frisierazko (% 13,0) eta galizierazko (% 8,5) albisteen ehunekoa nabarmenago geratzen da.

5. Eztabaida eta ondorioak

Europar, hizkuntza gutxietako online hedabideek % 16,4ko estaldura eskaintzen diete beren mintzairari buruzko albiste eta informazioei. Aldiz, hizkuntza nagusietako (espainola, ingelesa, frantsesa, holandarra) online hedabide gehienek soilik % 2,1 ematen diete; eta aldea nabarmena da, hizkuntza gutxietako hedabideen funtzio soziala, beren hizkuntza propioari buruzko informazio-, kultura- eta komunitate-hornitzaile gisa, modu garrantzitsuan berresten duena. Gertakari hori ez da batere hizkuntza nagusietako hedabideetan agertzen.

Bost hizkuntz komunitatetako (euskalduna, galiziarra, samia, gaeliko-eskoziarra eta korsikarra) hizkuntza gutxietako hedabideetan, ehunekoak balio europarraren (% 16,4) parekoak dira; komunitate galesean eta frisiarlean ehuneko zortzi puntu txikiagoak; komunitate irlandarrekoetan sei puntu handiagoak; eta komunitate bretoikoetan, beren online hedabideak mugatuak direnez eta informazio-estaldura batik bat kulturaren eta hizkuntza propioan zentratuta dutenez, portzentajea % 50,4raino igotzen da, eta datu horrek informazio orokor eguneratuaren absentsia berresten du.

Estaldurari buruzko datuak hedabideen jabegokoekin lotzen badira, emaitzak estatistikoki esanguratsuak dira. Hedabide pribatu eta publiko garrantzitsuak dituzten sei komunitatetan (euskalduna, galesa, galiziarra, irlandarra eta frisiarra) kazetaritza-entrepresa pribatuek hizkuntza gutxietarekin erlazioatutako online informazio esanguratsuki gehiago argitaratzen dituzte jabego publikoekin baino. Emaitza horrek ondorioztatzea ahalbidetzen du hizkuntza gutxietako hedabide pribatuak esanguratsuak direla mintzairarekin erlazioaturiko errealitate informatiboak komunitatearentzat eta bere audientziarentzat presente egon eta eskuragarri izan

daitezen. Halaber, kontsideratzen da jabego publikoko hedabideek, hizkuntza propiokoak eurak ere, arreta gehiago eman beharko lieketela beren hizkuntzei eta haiekin erlazionaturiko albisteei.

Estaldura horren enkoadraketak edo *framing*-ak, Europari dagokionez, honako ezaugarri hauek erakusten ditu parametro ezberdinetan: hizkuntza gutxituetako online albisteen erdiek baino gehiagok (% 58,8) hizkuntzaren garapenari buruzko albistek eskaintzen dituzte; heren batek (% 31,4) hizkuntza gutxitua babestu edo gorai patzen du; eta soilik hamar informaziotik batek (% 9,8) hizkuntzaren egoerari buruzko kexa edo protesta azaltzen du. Horrek adierazten du online hedabideen ikuspegia, orokorrean, batik bat hizkuntzaren alde positiboak eta aurrerakuntzak argitaratzera bideratuta dagoela

Eduki motari dagokionez, aztertutako hedabideen online albisteen bi heren (% 66,8) kultura eta hizkuntza kategorian sartzen dira, hizkuntz komunitate guztietan gertatzen den ondorioa, gaeliko-eskoziarrean izan ezik, non haren balioa % 80koa den, eta korsikarrean, non ia % 50era jaisten den.

Protagonistari dagokion parametroan, Europan, kazetaritza-kontakizun gehienetan pertsonaia nagusia instituzioa da (% 40,9) edo artista/kirolaria (% 34,2). Pertsona arrunten protagonismoa % 20koa da, eta, inferentziaz, ondoriozta daiteke, aldagai horrek gaur egungo kazetaritza estandarren balio parekoak dauzkala. Azpimarratu behar da komunitate gaeliko-eskoziarrean protagonistak, gehienbat (% 46,2), pertsona arruntak direla eta hedabide bretoietan eta galesetan ehunekoak ere nabarmenak direla (% 24-30). Argi dagoela dirudi Erresuma Batuko irrati eta telebista publikoko bi kanalak (BBC) estaldura zabalagoa ematen saiatzen direla, erakundearen helburu-adierazpenaren laugarren puntuak erakusten denez⁴. Hedabide bretoien kasua desberdina da; beren hizkuntzan hedabide generalistarak ez daukatenez, jasotako albistek, batik bat, bretoierari buruzko albistek ematen dituzte. Gertatzen da sustatzaileak hizkuntza gordetzean inplikaturiko boluntarioak izan ohi direla.

Albisteen genero eta protagonismoari buruzko datuek denotatzen dute informazioen erdia baino gehiago gizonek protagonizatzen dituztela; gutxi gorabehera albisteen laurden bat emakumeek eta bien protagonismoa % 20an gertatzen da. Adierazle horrek kazetaritzak orokorrean erakusten dituen emaitzei eta mugitzen den testuinguru patriarkalari erantzuten die. Datu hauek komunitatez komunitate banakatzean, ikusten da hedabide irlandarrak, korsikarrak eta frisiarrak emakumei arreta gutxien ematen dietenak direla. Aldiz, online hedabide samietan beren hizkuntzarekin erlazionaturiko albisteen bi heren baino gehiago emakumeek protagonizatuak dira, batezbesteko europarra nabarmenki gaindituz. Alde horrek iparreko herrialdeetan, eta bereziki haien hedabideetan, genero-berdintasunaren alde egindako lana islatzen du (NIKK *et al.*, 2014).

Aztertu diren bederatzi komunitateetako albisteen «foku geografikoa» edo *topos*-a, batik bat komunitatea bera da. Dena delarik, tokiko *topos*-ari dagozkion albistek (% 18,8) adierazten dute erredakzio-talde euskaldunek arreta berezia

4. <https://www.bbc.com/aboutthebbc/governance/mission>

eskaintzen diotela eremu horri, zeinak agerian uzten baitu euskal talde horiek hizkuntz komunitatearen lurraldetasun guztia betetzeko egiten duten ahalegina, eta bereziki, albistea gertatzen den tokira hurbiltzekoa.

Sintesi modura, garrantzizkoa da azpimarratzea hizkuntza gutxituetako online hedabideek egiten duten funtsezko lana beren hizkuntzaren inguruan gertatzen diren errealitateak aipatzean; izan ere, bestela, informazio-espazio hori desagertu eta ez legoke gizartearen eskura. Egitate horrek transzendentzia handiagoa hartzen du babes instituzional gutxiago duten komunitateetan, adibidez, bretoian. Hain zuzen, batik bat hor zentratzen da kazetaritza-lana hizkuntzari dagozkion gaietan, bretoierarentzat bozgorailu bakarra baita. Halaber, azpimarratu beharra dago, oro har, kazetaritza-enpresa pribatuek jabego publikoko hedabideek baino esanguratsuki hizkuntza gutxituarekin erlazionaturiko online albiste gehiago argitaratzen dituztela. Beraz, hizkuntza gutxituen garapenari erlazionaturiko albiste gehienek hizkuntzaren garapenari buruzko arazoak erakutsi edo hura babestu/goraipatzen dute, eta gehienbat kultura/hizkuntza lantzen dute; espero zitekeen kontrara, berriz, hizkuntza gutxiuaren egoerarekin ezinegona apenas ageri da. Ez dago zalantzarik, hizkuntza gutxituetako hedabideek betetzen duten oihartzun-, erreferentzia- eta kohesio-plataformaren funtzioak ezinbestekoak direla komunitatearentzat berarentzat ez ezik, beren hizkuntzen biziraupen eta osasun onarentzat ere. Kazetarien eta, askotan, boluntarioen lanagatik ez balitz, euskara, katalan, galiziera, bretoiera, frisiara, samiera, irlandera eta gaeliko eskoziarrari buruzko albisteak eta beren protagonistak desagertu egingo lirakeke informazio-espaziotik. Hizkuntza gutxituetako hedabideek Europako aniztasunaren transzendentzia erakusten dute. Europa plurala hizkuntz gutxiengoan ispiluan azaltzen da. Ikusteko dago Europako parlamentuan katalanaren, galizieraren eta euskararen ofizialtasuna lortzeko José Manuel Albaresek, Espainiako Estatuko Kanpo Arazoetako ministroak, egin duen lanak bere alderdiaren aldetik jarraipena izanen duenez ala soilik 2023. urteko uztailako hauteskundeen ondoren inbestidura lortzeko ahalegina izan den. Dena dela, hizkuntza gutxituen egoera duintzeko Europako parlamentuaren agendan eta, ondorioz, gainerako hedabideetan ere haien tarte lortzea albiste pozgarria da.

Azken buruan, hizkuntza gutxitu baten albisteak hizkuntza nagusietako hedabideetan plazaratzen ez badira, hizkuntz komunitate oso bat diskriminatua izaten ari da, esfera publikotik ezabatu egiten baita; baina gizarte osoak ere galtzen du bere errealitatearen alderdi garrantzitsu bat ezagutzeko eskubidea.

6. Erreferentziak

Aalberg, Toril eta Curran, James (2012). *How Media Inform Democracy: A Comparative Approach*. Routledge.

Bell, Alan eta Holmes, Janet (1995). *Language and the Media*. Cambridge University Press.

Broughton Micova, Sally (2013). Rights vs. reality: minority language broadcasting in South East Europe. *Journal on Ethnopolitics and Minority Issues in Europe*, 12. lib., 54-79.

Browne, Donald. R. (2005). Ethnic Minorities, Electronic Media and the Public Sphere: A Comparative Approach. In *Euricom Monographs*. Hampton Press.

- Christians, Clifford; Glasser, Theodore. L.; McQuail, Denis eta Nordenstreng, Kaarle (2009). *Normative Theories of the Media: Journalism in Democratic Societies*. University of Illinois Press.
- Cormack, Mike (2016). Problems of Minority Language Broadcasting: Gaelic in Scotland. *European Journal of Communication*, 8. lib., 101-117. <https://doi.org/10.1177/0267323193008001005>
- Croteau, David eta Hoynes, William (2001): *The business of media: Corporate media and the public interest*. Pine Forge Press-Sage.
- De Vreese, Claes (2005). News Framing: Theory and Typology. *Information Design Journal*, 13. lib., 51-62. <http://dx.doi.org/10.1075/idjdd.13.1.06vre>
- Entman, Robert (1993). Framing: Towards Clarification of a Fractured Paradigm. In Denis MQuail (argtz.), *MQuail's Reader in Mass Communication Theory*. Sage Publications.
- Ferré-Pavia, Carme; Zabaleta, Iñaki; Gutierrez, Arantza; Fernandez-Astobiza, Itxaso eta Xamardo, Nikolas (2018). Internet and Social Media in European Minority Languages: Analysis of the Digitalization Process. *International Journal of Communication*, 12. lib., 1.065-1.086.
- Goffman, Erving (1974). *Frame analysis: An essay on the organization of experience*. Harvard University Press.
- Gorter, Durk; Hoekstra, Jarich F. eta Jansma Lambert.G. (argtz.) (1989). *Fourth International Conference on Minority Languages*, Vol. 1: General Papers. Multilingual Matters.
- Hogan-Brun, Gabrielle eta Wolff, Stefan (argtz.) (2003). *Minority languages in Europe: Frameworks, Status, Prospects*. Palgrave MacMillan.
- Jones, Elin Haf Gruffydd eta Uribe-Jongbloed, Enrique (argtz.) (2012). *Social Media and Minority Languages: Convergence and the Creative Industries*. Multilingual Matters.
- Kenney, Sally. J. (2003, online argitaratua 2008an): Where Is Gender in Agenda Setting? *Journal of Women, Politics & Policy*, 25. lib., 179-207.
- Levy, David A. eta Nielsen, Rasmus K. (argtz.) (2010). *The Changing Business of Journalism and its Implications for Democracy*. Reuters Institute for the Study of Journalism, University of Oxford.
- Iyengar, Shanto eta Simon, Adam (1993). News Coverage of the Gulf Crisis and Public Opinion: A Study of Agenda-Setting, Priming, and Framing. *Communication Research*, 20. lib. <https://doi.org/10.1177%2F009365093020003002>
- McQuail, Denis (2000/1983). *McQuail's Mass Communication Theory* (4. ed., 2002an berrinprimatua). Sage.
- Mitchelstein, Eugenia eta Boczkowski Pablo. J. (2009). Between Tradition and Change: A Review of Recent Research on Online News Production. *Journalism*, 10. lib. <https://doi.org/10.1177/1464884909106533>
- Moores, Shaun (2016). Texts, readers and contexts of reading: developments in the study of media audiences. *Media, Culture and Society*, 12.lib. <https://doi.org/10.1177/016344390012001002>
- Moring, Tom (2007). Functional Completeness in Minority Language Media. In Mike Cormack eta Niam Hourigan (argtz.), *Minority Language Media: Concepts, Critiques and Case Studies* (17-33. or.).
- Moring, Tom eta Dunbar, Robert (2008). *The European Charter for Regional Or Minority Languages and the Media*. Council of Europe Publishing.
- Nordic Information on Gender (NIKK), Nordicom and Norden (2014): *Gender Equality in the Nordic Media*. In *Fact sheet from Nordic Gender & Media Forum 2014*. <https://www.gu.se/sites/default/files/2020-06/2014-Factsheet-NIKK-Nordicom-Gender-Media.pdf>

- Riggins, Stephen H. (argtz.) (1992). *Ethnic minority media: an international perspective*. Sage Publications.
- Sádaba-Garraza, María Teresa (2001). Origen, aplicación y límites de la «teoría del encuadre» *framing* en comunicación. *Comunicación y Sociedad*, 14. lib., 143-175.
- Scheufele, Dietram A. (2000). Framing as a Theory of Media Effects. *Journal of Communication*, 49. lib., 103-122.
- Sjøvaag, Helle eta Stavelin, Eirik (2012). Web media and the quantitative content analysis: Methodological challenges in measuring online news content. *Convergence: The International Journal of Research into New Media Technologies*, 18. lib. <https://doi.org/10.1177/1354856511429641>
- Simpson, Paul (1993). *Language, Ideology and Point of View*. Routledge.
- Schlosberg, Justin (2016). *Media Ownership and Agenda Control: The Hidden Limits of the Information Age*. Taylor and Francis.
- Talbot, Mary (2010). *Language and Gender*. Polity Press (2. edizioa).
- Van Dijk, Teun. A. (1987). *News analysis: Case studies of international and national news in the press*. Lawrence Erlbaum.
- Van Dijk, Teun. A. (1991). *News as discourse*. Routledge.
- Van Leeuwen, Theo Jacob (2009): Discourses of identity. *Discourses of identity*, 42. lib., 212-221. <https://doi.org/10.1017/S0261444808005508>
- Zabaleta, Iñaki; Gutierrez Arantza; Ferré Pavia, Carme; Fernandez, Iñaki; Urrutia, Santi eta Xamardo, Nikolas (2013). Website Development and Digital Skill: The State of Traditional Media in European Minority Languages. *International Journal of Communication*, 7. lib., 1.641-1.666. <https://doi:1932-8036/20130005>
- Zabaleta, Iñaki; Ferré Pavia, Carme; Fernandez-Astobiza, Itxaso; Urrutia Izagirre, Santi; Gutierrez-Paz, Arantza eta Xamardo, Nikolas (2015). El efecto de la digitalización en la financiación de los medios en lenguas minoritarias: diez casos europeos. *Palabra clave*, 18. lib., 131-155. <https://doi.org/10.5294/pacla.2015.18.1.6>